

# AGUR MARTZELINA!

1

Atsekabe-atsegina,  
inoiz banandu ezina!  
Gaur *zorionak* emon behar ta  
bihar *dolumina*.  
Bagenduan lagun fina  
-bere antzeko bagina!-  
Bihotz-betean danon izenez:  
“Agur Martzelina!”

2

Etxekoandre abila  
ta serbitzari isila  
berak ahal eban dana jarteko  
presta ta umila.  
Etengabe Jainko-bila,  
**Bizian Goran** dabila;  
Jesukristogan bizi betean  
aurkitu dedila.

3

Nun on egingo egarri,  
*arduradun* dabe jarri;  
Mungialdeko **Bizian Goran**  
dabe honen barri.  
Danak lagunduz alkarri,  
bera da eredugarri;  
horra zeruan *arduradun* bat  
guztioin pozgarri.

4

Martzelinaren gaixua,  
senide-konpromisua:  
jakin orduko, handik-hemendik  
dator abisia:  
“Gaua, nahiz egun osua  
nitzat ez da nekosua;  
horra zelan dan **Bizian Gora**  
alkarte gozua.

5

**Bizian Gora** deitua,  
badau nahiko meritua:  
Ze zugatz modu dan jakiteko,  
onena frutua.  
Kristau konprometitua,  
nundik daukan sekretua?  
Txiki apalen laguntzailea  
dan Espiritua.

6

**Bizian Gora** bidetik  
aberrira erbestetik,  
O Martzelina, agur anai ta  
arrebon partetik.  
Ondo bizi goi aldetik,  
dinotsugu bihotzetik;  
eta ez ahaztu *arduradun* lez  
joan zinan hemendik!